

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa alde zuzenetik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (izen-abizenak eta NANA). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. • Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. • Denbora: 4 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen alderdi erantzuteko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. • Helburua iritzia trukatzea, argudiatzea eta eztabaidatzea da. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	<p>35-40 min</p> <p>(15 min gaia prestatzeko dira)</p>	30	15

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zeure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

GAILUEN ZAHARKITZE PROGRAMATUA



Edisonek asmatutako lehenengo bonbillarekin hasi zen dena. Bonbillak 2.000 ordu inguru irauteko ekoizten zituzten eta enpresari talde batek iraupen hori murriztu egin behar zela erabaki zuen. Horixe izan zen zaharkitze programatuaren hasiera eta horrelaxe jarri zen martxan erosleek “etengabe erosteko” teknika hori.

Gailuak erabilera kalkulatu baten ostean apurtzeko edo matxuratzeko diseinatzea da zaharkitze programatua, berriak etengabe erostera bultzatuz. Erosi eta erosi, eta berriro ere erosi. Etengabe kontsumitzera eta gailu berriak erostera bultzatzen du eredu horrek, gailu zaharrak tonaka eta tonaka pilatuz, zabor-mundu bat sortuz.

MARTIN, X. Berria, 2012ko martxoa. Egokitua

Frantziako Diputatuen Ganberak adostu du zigor penalak jartzea produktuak iraupen-muga jakin batekin fabrikatzen dituztenei: bi urteko kartzela eta 30.000 euro arteko isuna. Zaharkitze programatuaren kontrako lege hori Berdeak alderdiak sortua da eta, haien hitzetan, zaharkitze programatua “iruzurra” da.

Eztabaidak Frantziako mugak pasatu ditu; Europako Batzorde Sozial eta Ekonomikoak mahai-inguru bat egingo du Europako gainerako herrialdeek ere zaharkitze programatua zigortu dezaten. Europako hainbat tokitan hasi dira neurriak hartzen zaharkitze-programatuari aurre egiteko: garantiaren epeak luzatu, erosketaren ordezkariak alokairua sustatu, ordezkariak eskatu...

ALDALUR, M. Argia, 2014ko urria. Egokitua

- Zer deritzozu zaharkitze programatuari? Iruzurtzat har dezakegu?
- Uste duzu kontsumoa bultzatzeko ezinbestekoa dela zaharkitze programatua?
- Zer iruditzen zaizu Frantziako Diputatuen Ganberak adostutako zigorra?
- Zer uste duzu Europako hainbat tokitan hartzen hasi diren neurriez?

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zeure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

ERRELEBO KONTRATUA



Zer da errelebo-kontratua? Enplegu-bulegoan langabetu gisa izena emandako langile batekin egiten den kontratu mota bat da. Kontratu hori egiteko, honelako egoerak gertatu behar du ezinbestez: enpresako langile batek, erretiro partziala eskuratu duelako, lanaldiaren zati bat egingo du eta jasoko duen soldata ere haren araberakoa izango da. Langile horrek utzitako hutsunea betetzeko, berriz, lanaldi partzialeko kontratua egingo zaio langile berriari.

Erretiroari buruzko araudiak zehazten duenez, erretiro-adinera heldu baino lau urte lehenagoko epean egin ahal izango da kontratu mota hau.

<www.bilbaodigital.es>. Egokitua

Eusko Jaurlaritzako 2.100 langilek erretiro partziala hartzeko aukera izango dute 2019. urtera arte, gobernuak sindikatuekin egindako akordioari esker. Errelebo-kontratuaren formulari jarraikiz, 61 urte betetzen dituzten lan-legepeko langileek erretiroa hartu ahal izango dute eta haien lekua beste langile batzuek beteko dute. Horrela, Administrazioako lantaldearen batez besteko adina gaztetu egingo da.

Arlo publikoko sailburuordeak azaldu bezala, erretiro partziala hartzen dutenek lanaldia % 25-75 murriztu ahal izango dute.

MARTIN, X. Berria, 2013ko apirila. Egokitua

- Zer deritzozu errelebo-kontratuari? Horrela sustatzen da gazteentzako lana?
- Zer onura ekar diezaike neurriak langileei eta enpresei?
- Administrazioako langileria gaztetzeko bidea izan daiteke?
- Egokiak eta nahikoak iruditzen zaizkizu betebeharreko baldintzak?

2. ariketa




Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain

- Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
- Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
- Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:



- elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen,
- esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen,
- euskara nola erabiltzen duzuen: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

ROBOTEK BIZITZA ERRAZTEN DIGUTE



-
- Neurri handi batean, **robotei esker** heldu gara **daukagun garapeneraino**.
 - **Eginbeharrekoa arinago, zehatzago eta nekerik gabe** burutzen dute robotek.
 - Lana **errazteaz gain, arriskutsuak edo gustuko ez** ditugun **lanak** egin ditzakete.
 - **Denbora libre gehiago** uzten digute eta, beraz, **bizi-kalitatea hobetzen** digute.
 - **Ez dira merkeak**, baina **bihar-etzi inbertsioak** merezi izango du.
 - **Teknologia berrietara egokitu** behar dugu bai ala bai, **etorkizuna** baitira.

ROBOTEI BELDURRA IZATEA ULERGARRIA DA



- **Teknologien eta makinaren menpe bizitzeari beldur** diogu azkenaldian.
- Robotek **lanpostuak kentzen** dizkigute, gehienetan **langileen ordezkokoak** baitira.
- Robotak **sortzeak eta ekoizteak** kostu handia du, normalean **garestiak** dira oso.
- **Energia asko** kontsumitzeaz gain, **lekua egokitu** behar dugu funtzioa bete dezaten.
- **Zientzia-fikzioa** dirudien arren, **arriskutsuak** izan daitezke **gizakiontzat**.
- Robotek **ez dute** inoiz izango gizakiok dugun **talentua edo sormena**.